




HIRITARREN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTA (BIGARREN ZATIA)

HIRITARREN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTA DONOSTIA (BIGARREN ZATIA)



Donostia



2017ko uztaila



AURKEZPENA	3
IKERKETAREN HELBURUA.....	4
METODOLOGIA	5
FITXA TEKNIKO.....	6
1.- GAI HAUEI BURUZKO BILAKAERA: Euskararen normalizazioa, beste udalerriekiko harremanak eta enpresak.....	7
2.- HIRIAREN ETORKIZUNeko PROIEKTUEN GARRANTZIA	12
3.- HERRITARREN PARTE-HARTZEA	19
4.- BAIEZTAPEN ZEHATZEI BURUZKO ADOSTASUN MAILA	22
5.- HIRIAREN ARAZO NAGUSIAK	25
6.- GEHIEN BALORATZEN DIREN HIRIAREN ALDERDIAK.....	27
7.- DONOSTIA, HITZ BATEAN	29
8.- HIRIAREN KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO BITARTEKOAK	31

Herritarren pertzepzioari buruzko inkestaren emaitzak jasotzen dira dokumentu honetan. Donostiako 2020 Plan Estrategikoaren segimenduaren esparruan kokatzen da inkesta hori. Hiriari buruz, hiriaren etorkizunari buruz eta hiriak dituen erronkei buruz herritarrek dituzten sentipenak neurtzeko tresna den aldetik, Urteko Aurrerapen Txosteneko elementu esanguratsua da.

Ikerketa honen helburua hiriari buruzko adierazle orokorrak izatea eta Donostiako herritarrek azpiegiturei eta udal zerbitzuei, garapen sozioekonomikoari, hiriaren jasangarritasunari eta bizi-mailari buruz duten pertzepzioaren bilakaera ebaluatzea da, bai eta hiriarentzako proiektu eta erronka estrategikoei buruz duten iritzia jakitea ere.

2017ko ekaineko emaitza hauek Donostiako Estrategia Bulegoak 2005. eta 2008. urteetan enkargatutako ikerketen emaitzekin alderatuta aurkezten dira.

Ikerketa hau Datakey SL Institutuak egin du (merkatu ikerketak eta iritzi-azterketak egiten dituen Donostiako enpresa).



Hauek dira herritarren pertzepzioa neurtzeko inkesta honen helburu nagusiak:

- Hiritarrek, hiria eta honen zerbitzu eta azpiegituren inguruan duten pertzepzioa eta balorazio orokorra.
- Hiriaren bizi-kalitatearekin erlazionatutako aspektu nagusien balorazioa.
- Hiritarrengan interesa piztu edo eragina duten gai eta aspektuek azken aldian izan duten eboluzioari buruzko balorazioa. Emaizak alderatzea; hau da, 2008. eta 2005. urteetan egindako ikerketen emaitzekin alderatzea.
- Abian edo aurreikusita dauden proiektu estrategiko nagusien, nahiz garrantzi estrategikoren bat duten gai handien adierazgarritasunari buruz, hiritarrek duten balorazioa.



Donostiako herritarren iritzia modu sinesgarrian aurkezteko, guztiz kuantitatiboa den metodologia bat aukeratu da.

Eraginkortasun arrazoiak direla medio, erabilitako teknika, egituratutako galdeketarekin telefono bidezko elkarrizketa egitea izan da, www.survey-datakey.com plataforma bidez. Telefono bidezko inkesta, modu bikainean proposatutako helburuei primeran egokitzen den teknika guztiz kuantitatiboa da. Inkesten batezbesteko iraupena 15 minutukoa izan da.

Galdetegia diseinatzeko, URBAN AUDIT proiektuaren esparruan egindako bizi-kalitateari buruzko iritzi-inkesta eta Donostiako Estrategia Bulegoak 2008an egindako inkesta hartu dira erreferentziazat. URBAN AUDIT pertzepzioari buruzko inkestan erabilitako eskalak praktikan jartzea erabaki da, Donostia eta metodologia hau erabiliz ebaluatzen diren hirien artean konparaketak egiteko datu homogeneoagoak lortu asmoz. Alternatiba honek zera dakar, aspektu batzuetan 2005-2008eko emaitzekin alderatuta, erabilitako zenbait aldagarritan bakarrik konparatu ahal izango direla bien arteko aldeak.

Galdetegia diseinatu eta gero, lagin pilotu edo pretest bat egin zen galdetegiaren ulergarritasuna egiaztatzeko. Informazioa biltzeko prozesua 2017ko ekainaren 13aren eta 30aren artean egin da.

Laginaren tamainari dagokionez, inkesta Donostian bizi diren 16 eta 74 urte bitartean dituzten 620 pertsoneri egin zaie inkesta. Lau adin tarterekin egin da lan hau: 16 eta 29 urte artekoa; 30 eta 44 artekoa; 45 eta 64 artekoa; 65 eta 74 artekoa, eta sei zonalde geografikotan burutu da:

Amara (Berri eta Zaharra).

Mendebaldea: Añorga, Errotaburu, Zubieta, Ibaeta, Berio, Ondarreta, Lorea, Bentaberri, Antiguo, Igeldo y Aiete.

Erdigunea: Miracocha, Centro, Parte Vieja.

Ekialdea: Gros, Egia, Intxaurrondo, Ulia.

Alza, Bidebieta.

Loiola, Zorroaga, Martutene.

Laginaren banaketa, auzo, sexu eta adinean proportzionala izan da, Donostiako biztanleria osoarekiko.

Euskararen normalizazioaren helburuaren markoaren barruan eta elebitasuna bermatu ahal izateko, galderak euskaraz, nahiz gazteleraz egin dituzten inkestariak izan dira galdegileak, hiritarrak telefonoz erantzuterakoan erabili duen hizkuntzaren arabera.



Laginaren Unibertsoa



Donostian bizi diren eta 16 eta 74 urte artean dituzten pertsonak

Laginaren Tamaina



620 inkestak

Laginaren Akatsa




$\pm 4\%$ $95,5\%$ eko konfiantza indizea eta $p=q=0,5$

Ikerketa teknika



Telefono inkesta anonimoa, survey-datakey plataforman egina

Laginaren sistema



Ausazkoa, sexu, adin eta bizilekuarekiko

Landa-azterketa



2017ko ekainak 13tik 30ra

Datakey S.L. Institutuak egindako txostena



1- GAI HAUEI BURUZKO BILAKAERA: EUSKARAREN NORMALIZAZIOA, BESTE UDALERRIEKIKO HARREMANAK ETA ENPRESAK ERAKARTZEKO AHALMENA




Atal honetan, azken bost urteetan hiru alderdi zehatzek izan duten bilakaerari buruzko herritarren pertzepzioaren emaitzak aurkezten dira. Alderdi horiek hobetu diren, okertu diren edo berdin mantendu diren galdetu zaie elkarrizketatuei:

- Euskararen normalizazioa
- Hiriaren harremanak inguruko udaletxeekin
- Enpresa berrien erakargarritasun kapazitatea

Emaitzek islatzen dute hiru alderdiek bilakaera positiboa izan dutela azken urteetan. Euskararen normalizazioak izan ditu emaitza onenak, eta antzeko emaitzak lortu ditu hiriak inguruko udalerriekin dituen harremanak alderdiak. Bi alderdi horiek hobetu direla uste duten pertsonak % 54 eta % 50 dira, hurrenez hurren; alderdi horiek okertu egin direla uste dutenak, berriz, % 4 eta % 5 dira.


Hirugarren lekuan dago enpresa berriak erakartzeko gaitasuna alderdia: % 12 izan dira erantzun negatiboak, eta % 48, positiboak (lau bider gehiago). Nolanahi ere, alderdi horren bilakaera izan da pertsona gutxienek baloratzen jakin izan dutena (hirutik batek ez du baloratu).





ALDERDI ZEHATZEN BILAKAERA

Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)





Alde nabarmenak

BATEZBESTEKOA		TXIKIAGOA		HANDIAGIA	
7,48	EUSKARAREN NORMALIZAZIOA			*Urtebete baino gutxiago darama bere auzoan bizitzen	10,00
7,29	HIRIAREN HARREMANAK INGURUKO UDALETXEEKIN	5,23	Langabetua		
		7,13	* > 10 urte daramatza auzoan bizitzen		
6,76	ENPRESA BERRIEN ERAKARGARRITASUN KAPAZITATEA			LOIOLA-MARTUTENE	8,06
				Ibaeta / Errotaburu / Igara / Berio / Pakea	8,46
				Añorga, Martutene, Igeldo, Zubieta	8,15
				16 - 29 urte bitarte	7,59
				*Ikaslea	7,83
		6,67	> 10 urte daramatza auzoan bizitzen		



2- HIRIAREN ETORKIZUNeko PROIEKTUEN GARRANTZIA



Jarraian, Donostiarentzat estrategikotzat jotzen diren hamabi proiektuen garrantzia baloratzeko egindako galderen emaitzak aurkezten dira. Horretarako, hiriaren proiektu hauek enuntziatu dira, eta eskatu zaie elkarrizketatuei proiektu bakoitzaren garrantzi-maila adierazteko. Proiektuak, garrantzi gehien dutenetatik garrantzi gutxien dutenetara daude ordenatuta (eskuratutako emaitzen arabera):

- Laguntza ematea etxebizitza eskuratzeko, bereziki gazteei
- Enpresa inobatzaileen eta inbestigazio enpresen erakargarritasuna
- Klima-aldaketaren aurka borroka egiteko ekintzak
- Balioak sustatzea
- Hiria adineko pertsonekin lagunkoiagoa izateko neurriak
- Hirian ibilgailu kutsagarriak sar daitezen murriztea
- Abiadura handiko trenaren iristea Donostiako hirigunera eta Atotxa tren geltokiko berrikuntza
- Bretxako arrandegiaren eraikinaren erabilerak berriz definitzea
- Etorkinak erakartzea hiriaren etorkizuneko beharren arabera
- Topo/metro linea osatzea igarobidea eta Benta Berriko eta Erdialdea/Kontxako geltoki berriak eginez
- Anoetako estadioa eta miniestadioa birmoldatzea
- Garbera handitzea




Emaitzetan, enuntziatutako **hamabi proiektuen garrantziaren hierarkizazio argia ikus** daiteke, eta, era berean, **alde handiak** ikus daitezke zerrendako lehen eta azken proiektuen balorazioen artean. Batez besteko balorazioa 6 puntukoa izan da (10etik).

Gainerako proiektuen **gainetik**, donostiarrek ematen dioten garrantzian oinarrituz, **etxebizitza eskuratzeko aukerak emateari dagokiona dago, batez ere gazteei** (8,6). Elkarriketatutako lau pertsonatik hiruk oso garrantzitsutzat jo dute alderdi hori.

Bigarren lekuan, **enpresa berritzaileak eta ikerkuntza-enpresak erakartzea** (8,0) alderdia dago. Alderdi hau oso garrantzitsua da hiru pertsonatik birentzat. Jarraian, **klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurriak** (7,9), **balioen sustapena** (7,7) eta **hiria adineko pertsonentzako atseginagoa egiteko neurriak** (7,6) alderdiak ageri dira. Hiru alderdi horiek oso garrantzitsutzat jotzen ditu elkarriketatuen % 55ek edo gehiagok.

Hirugarren lekuan, bi proiektu ageri dira, batez bestekoa baino kalifikazio hobeak dituztenak: **ibilgailu kutsatzaileei sarbidea mugatzea** (6,7) eta **AHT erdialdera iristea eta Atotxaren birmoldaketa** (6,1).

Bost proiektuk 6 puntu baino kalifikazio baxuagoa izan dute; horietako bik 5 puntu baino gehiago eskuratu dituzte: **Arrandegia – Bretxa eraikinaren erabilerak berriz zehaztea** (5,5 - % 15ek ED/EDE) eta **etorkinak erakartzea, hiriaren etorkizuneko beharretan oinarrituz** (5,1). Laginaren erdiak baino gehiagok adierazi du **hiru proiektu ez direla batere garrantzitsuak**; 5 puntuz azpiko batez bestekoak eskuratu dituzte eta hiruetan obrak egitea beharrezkoa da: **Topo/Metroaren linea osatzeko pasantea egitea**, eta Benta Berri eta Kontxa/Erdialdea geltoki berriak eraikitzea (3,6), **Anoetako estadioa eta miniestadioa birmoldatzea** (3,0) eta **Garbera handitzea** (2,1).





Batez besteko garrantzia (0tik 10era)





Alde nabarmenak

BATEZBESTEKOA		TXIKIAGOA		HANDIAGIA	
8,57	LAGUNTZA EMATEA ETXEBIZITZA ESKURATZEKO, BEREZIKI GASTEEI	8,01	Jubilatua / Pentsioduna	*Loiola / Txomin enea 16 - 29 urte bitarte	9,62 9,13
		8,48	> 10 urte daramatza auzoan bizitzen	Donostian jaioa 1 - 5 urte daramatza bere auzoan bizitzen	8,71 9,31
8,02	ETORKINAK ERAKARTZEA HIRIAREN ETORKIZUNEKO BEHARREN ARABERA	6,96 6,35	ERDIALDEA (3) *Alde Zaharra	45 - 64 urte bitarte Gizonezkoa Gipuzkoan jaioa (Donostiatik kanpo) > 10 urte daramatza auzoan bizitzen	8,40 8,31 8,93 8,09
7,85	KLIMA-ALDAKETAREN AURKA BORROKA EGITEKO EKINTZAK			16 - 29 urte bitarte *Ikaslea	8,54 8,72
7,73	BALIOAK (ELKARTASUNA, ZINTZOTASUNA)			Amara (zaharra) / Morlans	8,85
7,59	HIRIA ADINEKO PERTSONEKIN LAGUNKOIAGOA IZATEKO NEURRIAK	7,08	MENDEBALDEA (2)		
6,69	HIRIAN IBILGAILU KUTSAGARRIAK (DIESELA...) SAR DAITEZEN MURRIZTEA	6,38 6,54	Gizonezkoa *> 10 urte daramatza auzoan bizitzen	Emakumezkoa 5 - 10 urte daramatza auzoan bizitzen	6,99 7,78



Alde nabarmenak

BATEZBESTEKOAK		TXIKIAGOAK		HANDIAGIA	
6,09	ABIADURA HANDIKO TRENAREN IRISTEA	5,20	16 - 29 urte bitarte	45 - 64 urte bitarte	6,67
	DONOSTIAKO HIRIGUNERA ETA ATOTXA TREN	4,48	*Ikaslea		
	GELTOKIKO BERRIKUNTZA	4,58	Langabetua	Etxeko lanak	7,84
		5,73	*Donostian jaioa	*Espainian jaioa	7,37
5,10	Etorkinak erakartzea hiriaren etorkizuneko beharren arabera ETORKINAK ERAKARTZEA HIRIAREN ETORKIZUNeko BEHARREN ARABERA			*Ikaslea	6,33
3,56	TOPO/METRO LINEA OSATZEA IGAROBIDEA ETA	2,27	ERDIALDEA (3)		
	BENTA BERRIKO ETA ERDIALDEA/KONTXAKO	1,54	Alde Zaharra		
	GELTOKI BERRIAK EGINEZ	2,14	Langabetua		
2,93	ANOETAKO ESTADIOA ETA MINIESTADIOA BIRMOLDATZEA	2,83	> 10 urte daramatza auzoan bizitzen		
2,14	GARBERA HANDITZEA	1,10	ERDIALDEA (3)		
		1,10	Aiete / Miramon / Zorroaga		
		0,63	Erdialdea / Mirakontxa		
		1,89	*Donostian jaioa	Etxeko lanak Beste herrialderen batean jaioa	3,54 3,40



3- HERRITARREN PARTE-HARTZEA



Jarraian, herritarren parte-hartzearekin lotutako emaitzak aurkezten dira. Horretarako, elkarrizketatuari honako alderdi hauei buruz zer iritzia duen galdetu zaio:

- Uste duzu **Udalak teknologia berriak egoki eta behar beste erabiltzen dituela** herritarrekiko harremanean? **Iritzien % 60 baiezekoak izan dira** eta % 22 negatiboak (% 18 ED/EDE)

Parte hartzeko interesa:

- **Interesik al duzu** udal-gaietan **parte hartzeko**? **Hirutik batek** badu interesa, eta hirutik bik, ez du interesik. Nahiko zenuke udal-gaietan **sare sozialen bitartez parte hartu**? **Baiezko erantzuna % 27k eman du**; parte hartzeko interesa duten pertsona ia guztiek interesa dute sare sozialen bidez parte hartzeko.

Partaidetza eta asoziazionismoa:


- **Parte hartu al duzu Udalak egindako herri-galdeketa batean** edo tokian **parte hartzeko organoren bateko kidea zara**? **% 19k baietz erantzun du**, eta % 81ek ezetz.
- **Herritarren elkarte edo erakunderen bateko kidea al zara**? **%10 batek baietz dio**, eta % 90ek, ezetz.

Parte hartzeko moduak:

- **Pozik al zaude herritarrek** udal-kudeaketan **parte hartzeko dituzten bideekin**? **Laginaren erdiak** ez ditu ezagutzen zein diren parte hartzeko moduak. Parte hartzeko moduak baloratu dituztenen **% 82 pozik agertu da haiekin**, % 18, berriz, ez. **Pozik ez egoteko arrazoiak** hauek dira: Udalak benetako parte-hartzearekiko duen interes-falta, konexio-gabezia, informazio-gabezia, bizkortasun-gabezia, ezagutzarik eza, kontsulta gutxi egotea intereseko gaietan eta herritarren parte-hartze txikia.



HERRITARREN PARTE-HARTZEA





4- BAIEZTAPEN ZEHATZEI BURUZKO ADOSTASUN MAILA




Jarraian, hiriaren beste zenbait alderdirekin lotutako emaitzak aurkezten dira. Horretarako, honako alderdi hauekin ados dauden edo ados ez dauden galdetu zaie elkarrizketatuei:

- Uste duzu **mugara iritsi dela hirira erakarritako turismo kopurua? Gehienen iritziz ez dira beren mugara iritsi**. Hala irizten dio % 56k; elkarrizketatuen % 39k, ordea, baietz uste du (% 5ek ED/EDE)
- Nahi duzu Udalak **bere baliabideak edo instalazioak zezenketak egiteko erabiltzea? Elkarrizketatuen % 71 ez dago ados** Udalaren baliabideak zein instalazioak zezenketak egitera bideratzearekin; % 18, ordea, bai (% 11k ED/EDE)
- Uste duzu Donostian 1978 eta 2011 bitartean izandako **motibazio politikoko indarkeriaren biktimek** hiriaren aldetik **aitortza handiagoa** eduki beharko luketela (memoriala, plakak...)? **Elkarrizketatuen % 52k** aintzatespen handiago egon beharko lukeela uste du; **% 27k**, ordea, **ez du hori uste** (% 21ek ED/EDE)

Egiten ari diren proiektuak eta amaitutako proiektuak:

- Pozik al zaude **Tabakalera proiektuarekin? Pozik daudenak** (% 46) ez dira gehiengoa, **baina pozik ez daudenak baina gehiago dira** (% 38). Elkarrizketatuen % 17k ez daki proiektua baloratzen.
- Pozik al zaude **2016ko Kulturaren Europako Hiriburua** izateaz? Desadostasuna dago iritzietan, baina **gogobete gabekoen ehunekoa** (% 51) **gogobeteta daudenena baino handiagoa da** (% 46).





5- HIRIAREN ARAZO NAGUSIAK



DONOSTIAREN ARAZO NAGUSIAK

Erantzun askeko galdera

Jarraian, Donostiarrek erantzun askeko galderari emandako erantzunak aurkezten dira:

➤ “Aipatu hiriaren eta/edo auzoaren 3 arazo/erronka nagusiak”





6- GEHIEN BALORATZEN DIREN HIRIAREN ALDERDIAK



Erantzun askeko galdera

Jarraian, donostiarrek erantzun askeko galderari emandako erantzunak aurkezten dira:

“Zer da hirian eta/edo auzoan gehien baloratzen duzuna?”



Baloratu diren beste zenbait alderdi

Elkartasuna/atsegintasuna
Paradisua
Turismoari irekita egotea
Mendia
Oinezkoentzako eremuak
Eraikinak/hirigintza
Denda txikiak
Bidegorriak
Osasungintza
Kontxako badia
Tabakalera
Kirol eskaintza
Paseoak
Aisaldia aukerak
Ibaia
Liburutegiak



7- DONOSTIA, HITZ BATEAN



ADJEKTIBO BAT – DONOSTIA, HITZ BATEAN

Erantzun askeko galdera

Jarraian, donostiarrek erantzun askeko galderari emandako erantzunak aurkezten dira:

“kalifikatzaile edo hitz erabiliko zenuke hiria definitzeko?”



Beste adjektibo batzuk

Sekulakoa	Hondartza
Erosoa	Familiarra
Apartekoa	Berdingabea
Perfektua	Zilarrezko
Xarmagarria	kikaratxoa
Dotorea	Garbia
Itzela	Segurua
Ideala	Pribilegioa
Ona	Paradisua
Elitista	Erromantikoa
Bizia	Kutuna
Xarma duen lekua	Urdina
Berebizikoa	Harribitxia
Aspergarria	Zerutiarra
Kulturala	Kartsua



8- HIRIAREN KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO BITARTEKOAK



UDALAREKIN ETA HIRIAREN KUDEAKETAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIEK BERRI IZATEKO ERABILTZEN DIREN

Erantzun askeko galdera

Jarraian, donostiarrek erantzun askeko galderari emandako erantzunak aurkezten dira:

“Nola jasotzen duzu Udalarekin eta hiriaren kudeaketarekin zerikusia duten gaien berri?”

